



Idazkaritza-Kontuhartzaileta

2023/05/11n EGINDAKO EZ OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
11/05/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko maiatzaren 11n, arratsaldeko 18:30ean, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ez Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:30 horas del día 11 de mayo de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD4YJP.bEwD>

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- GEOTRUKE-SISTEMA BAT EZARTZEKO ETA MANTENTZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENTZEKO ETA EGIKARITZEKO (PRESTAZIO NAGUSIA) KONTRATU MISTOA: *lizitazioa arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria eta esleipen prozedura irekitzea onartza.*

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikulan aurreikusitako ondorioetarako, korporazio honek beharrezkotzat jotzen du administrazio-kontratu misto bat izapidezeta geotruke-sistema bat ezartzeko eta mantentzeko, bai eta kirolegikoa, Luis Ezeizako, Kulunkako, Haur Hezkuntzako eta pilotaleku eraikinetako galdare-gelak egokitzeko, martxan jartzeko eta optimizatzeko ere. Kontratu horrek honako hauek batera kontratatzea barne hartzen du:

- Proiektua idaztea.
- Obra egikaritza (prestazio nagusia).
- Obren zuzendaritza.
- Segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa.
- Mantentze-lanak

Espedientea osatu ondoren, kontratuaren balio zenbatetsia eta expedienteko gainerako jarduketak ikusi dira, non behar bezala justifikatzen diren prozeduraren hautaketa, kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116. artikulan aipatzen diren gainerako alderdiak.

Espedienteari administrazio baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria gehitu zaizkiola ikusi da.

Kontratua urte honetan hastea aurreikusten da, eta 5 urte eta 2 hilabeteko iraupena ezarri da. Azken 4 urteak harrera, egiaztapen, berme eta mantentze-faseari dagozkie.

Kontuan hartu beharrekoak:

Proiektuaren idazketari + obraren egikaritzeari + obren zuzendaritzari + segurtasun eta osasunaren koordinazioari buruzko kontratuaren zatia (1.342.649,87 €) 2023ko aurrekontuaren kargura finantzatzeko nahikoa kreditu badago ere, beharrezkoa da urte anitzeko 86.394,00 euroko gastua onartza 2025, 2026, 2027 eta 2028. ekitaldietan harrera, egiaztapen, berme eta mantentze faseari dagokion kontratuaren zatia finantzatzeko.

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluak xedatzen duenez, baimentzen diren ekitaldiaren ondorengo ekitaldietara hedatu beharreko gastuengatiko konpromisoak hartu ahal izango dira, baldin eta ekitaldian bertan edo hurrengoan gauzatzen hasten badira.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

Horiek horrela, Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzailearen diktamena ikusita, aurrez eztabaidatuta, eta 7 zinegotzik (EAJ/PNVko 6k eta EEEko 1ek) alde bozkatuta, eta EH BILDUko 4 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Administrazio-espedientea hastea administrazio-kontratu mistoa kontratatzeko ondorengoa egiteko: geotruke-sistema bat ezarri eta horren mantentze-lanak eta, horrekin batera, kirodegiko, Luis Ezeizako, Kulunkako, Haur Hezkuntzako eta pilotaleku eraikinetako galdera-gelak egokitzea, martxan jartzea eta optimizatzea honako prezioan: 1.181.027,99 euro, gehi BEZari dagozkion 248.015,878 euro.

Bigarrena.- Indarrean dagoen udal-aurrekontuaren ondoren adieraziko diren aurrekontu-aplikazioen kontura ondoren ere adieraziko diren zenbatekoak baimentzea. Zenbateko guztiak proiektua idazteari + obrak gauzatzeari + obrak egikaritzeari + segurtasuna eta osasuna koordinatzeari dagozkion kontratuaren zatikoak dira.

BAIMENTUTAKO ZENBATEKOA (€)	2023ko AURREKONTU APLIKAZIOA
958.652,01	0400.622.342.20.01
76.531,04	0600.622.323.30.01
14.769,15	0600.622.323.10.01
229.593,13	0600.622.323.40.01
63.104,54	0600.622.342.10.01

Hirugarrena.- “Instalazioak hartzeko, adierazleak egiazatzeko, berme eta mantentzeko faseari” dagokion kontratuaren zatia finantzatzeko, zeinaren hasierako epea 2025era arte aurreikusten ez den eta obrak egin ondoren 4 urteko iraupena ezarri zaion, ondorengo gastuak BAIMENTZEA etorkizuneko aurrekontu-ekitaldien kontura:

Gastua, guztira: 86.394,00 euro

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

- 2025eko ekitaldia: 21.598,5 euro
- 2026ko ekitaldia: 21.598,5 euro
- 2027ko ekitaldia: 21.598,5 euro
- 2028ko ekitaldia: 21.598,5 euro

Laugarrena.- Litzazioa arautu behar duten administrazio baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea, espedientean jasotzen diren baldintzetan.

Bosgarrena.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta litzaziorako dagokion iragarkia kontratazio organo honen kontratatzairearen profilean argitaratzeko agintza, egoki iritzitako proposamenak hogeita sei eguneko epean aurkeztu daitezen.

EZTABAI DAN ESANDAKOAK:

- Josu Ezkurdiak azaldu du proiektua kirolegian geotermia-sistema bat instalatzean datzala, eta horrekin kirolegia bera, Luis Ezeiza, Kulunka, pilotalekua eta liburutegia hornitzea. Esan du, horrela, energia-kontsumoa murriztu eta aurreztu nahi dela. Baldintza agiran, gutxienez % 35eko aurrezpena ezartzen da, baina azterketa teknikoetatik ondorioztatzen da % 40 edo % 44 aurreztu daitekeela. Hau da, kontsumoa ia % 50 murriztuko litzateke. Horrela, karbono-aztarna ere nabarmen murrizten da. Proiektu hau bat dator gaur egun hainbat eremutatik egiten diren eskaerekin, eta klima-aldeketaren aurrean horrelako jarduerak abian jarri behar direla uste dugu. Proiektu indartsua da, litzazioa ia 1.500.000 euroko aurrekontuarekin eta 14 hilabeteko gauzatze-epearekin aterako da. Kontratua esleitura eta obrak eginda, sistema 2024ko negurako martxan egon liteke eta orduan ikusi aurrezpen guzti hori. Aipatutako abantaila gain, proiektu honek beste bi abantaila ere baditu: alde batetik, Luis Ezeizako galdera-sistema aldatzeko aprobetxatuko genuke, jarduketa horri ekin behar baitzaio eraikinaren antzinatasuna kontuan hartuta; eta, bestetik, geotermia-sistemak, berez, energia-kontsumoa handitzea dakarrela kontuan hartuta, kontsumo hori murrizteko, kirolegiko teilituan plaka fotovoltaiko gehiago jartzeko aukera lantzen ari gara, eta horrekin, geotermia-sistemak ekarriko lukeen kontsumoa murrizteaz gain, kantxako teilitauak duen itogin-arazoa konpontzeko ere baliatuko genuke. Amaitzeko, bakarrik esan ateratzea kostatu zaigun proiektua dela: iaz hasi ginen teknikoki lantzen eta duela urtebete hasi ginen baldintza teknikoen eta administratiboen agiriekin; eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet teknikariei egin duten lanagatik, pleguak idazten parte hartu duten enpresei eta Eusko Jaurlaritzako EEEri, emandako lagunza eta aholkularitza teknikoagatik.



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

- Nestor Arana: guk galdera batzuk ditugu egiteko. Ezin izan genuen batzordean egon, deialdia ostiralean jaso genuelako eta ezin izan genuelako gure agenda hain denbora gutxian egokitu, are gehiago batzordeak ostegunean egitea adostuta dugunean; eta aldaketa horrekin, esan bezala, ezin izan ginenean. Ikusten dugu hemen lizitazio bat egitea dela kontua, eta justifikatzen duzue bilkura ezohiko izaera presa dagoelako dirulaguntza bat eskatu ahal izateko. Gure ustez, saioa 4 egun inguru atzeratzeak ez zuen inolako eraginik izango, eta are gehiago, oker ez banago, dirulaguntzen epea abenduaren amaieran amaitzen dela kontuan hartuta. Lehenengo galdera hortik etorriko litzateke: nondik dator presa hori batzordearen eta osoko bilkuraren ezohiko bilkura deitzeko? Ondoren, galdera teknikoak ditut: bigarrena, dokumentuan egungo baliok aipatzen dira, eta horiei dagokienez, hobekuntzak lortu nahi dira; adibidez, energia ez-berriztagarriaren kontsumoa % 35 murriztea eta energia berriztagarriarena % 32 handitzea. Halaber, kalifikazio energetikoa letra batean igotzea planteatzen da, gero, aurrerago, helburu bakarra aipatzen da, ez dakigu hiru horiek diren helburuak edo energia berriztaezinaren % 32ko murrizketarena soilik den. Hori ez da argi geratzen. Horrekin lotuta, datu batzuk ematen dituzue, eta horien artean, une honetako gas-kontsumoa, gutxi gorabehera 1.300 KWkoa dela jasotzen da. Hala ere, beste taula batean, non datuak ere ematen diren, datu ezberdinak agertzen dira, gasaren kontsumoarena 1.000 KW inguruko delarik. Ez dugu ulertzen nondik atera diren datu horiek eta zein den haien arteko aldea. Gero, grafiko bat ere agertzen da, zeinaren datuak ez datozen bat tauletan jasotako datuekin; adibidez, grafikoan adierazten da urtarilean guztizko kontsumoa 180.000 KWkoa izan zela, eta, taulan, 140.000 KWkoa. Eta hori ere ulertzen ez dugun zerbaitek da, eta are gehiago helburua kontsumoa murriztea bada, ez dakigu datu horietatik zein hartuko den erreferentziatzat, gero, Europatik laguntzak etortzen badira, oso garrantzitsua izango baita helburu horiek lortu direla egiaztatzea. Hobekuntzak proposatzen direnean, jarraipena egin behar da, eta ez dugu argi ikusten zer datutan oinarritu behar den jarraipen hori egiteko. Hurrengo galdera honako hau da: esan duzun bezala, bost instalaziotan jardun nahi da, azkenean, gehien kontsumitzuen den tokia kiroldegia da, eta, bigarren, Luis Ezeizan. Zergatik ez zentratu bi instalazio horietan? Eta are gehiago kontuan hartuta geotermia-sistemaren % 60a erabiliko duela kiroldegiak? Eta hori, frogatuta balioko lukeelako nola funtzionatzen duen ikusteko, eta, horrela, esperientzia nola joan den ezagutzeaz gain, gero beste dirulaguntza batzuk eska daitezkeelako gainerakoentzat. Eta azkenean, udalarentzat aurrezpena berdina izango litzateke. Gainera, hiru instalazio daude, eta horien artean batez ere liburutegiak eta Kulunkak, eraginkortasun energetikoa oso txikia dute. Ez litzateke hobe izango eraginkortasun energetiko hori handitzea isolamendu-sistemak edo lurzoru erradiatzaleak instalatz, eta eraginkortasun hori hobetu ondoren, hornidura-sisteman eragitea. Orduan, galdera hori ere badugu, hau da, lehenengo murriztea, gero gastatu behar dena baino gutxiago gastatzeko. Pilotalekua aipatu duzu, baina lizitazio honetan ez da oso argi geratzen zein zati sartzen den, ez dugu argi ikusten zer jarduketa egingo diren. Eta, azkenik, ea argitu dezakezuen zer proposatzen den hemen onartzeko; izan ere, dirulaguntzagatik bada, eta horretan oinarritu bada osoko bilkura, lehenago, Madrili eskatu zitzainean, ez zen osoko bilkuratik pasatu. Hori ere argitzea nahi genuke. Eta honekin, prest!
- Josu Ezkurdia: dakidan guztia erantzuten ahaleginduko naiz, eta ez dakidana, noski, ez dut erantzungs. Egia da EEEri dirulaguntza bat eskatu zaiola, eta erantzunaren zain

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

gaude, baina laguntza hori justifikatzeko epe bat dago. Laguntza ematen denetik, gehienez ere 18 hilabeteko epean justifikatu behar da dirulaguntza, eta proiektu horrek 14 hilabeteko iraupena aurreikusita du. Epeekin arazorik ez izateko, hau da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako epean proiektua ez gauzatzeagatik laguntza ez galtzeko, beharrezkotzat jotzen dugu lizitazioarekin lehenbailehen hastea. Lizitazioak ere denbora behar duelako, eta denbora hori proiektua gauzatzeko denborari gehitu behar zaiolako. Hori dirulaguntzari dagokionez. Gero, galdera tekniko asko egin dituzu. Aipatu duzu batzordea astelehenean egin zela, normalean ostegunetan egiten denean. Ostegunetan ohiko bilkurak egiten dira, eta ezohikoak ahal denerako deitzen dira, eta batzorde horren deialdian legezko epeak bete genituen. Hori esanda, eta zuk ondo dakizun bezala, urtebete baino gehiago daramagu proiektu honekin, eta nahikoa denbora izan duzu galdera tekniko horiek guztiak egiteko. Ni ez naiz hemen gai teknikoei erantzuten hasiko: bat, ez delako nire funtzioa, eta bi, ez dudalako gaitasun teknikorik. Hainbat dira baldintza teknikoak landu dituzten kanpoko enpresak eta udal teknikariak, eta ziur nago haiengana jotzen baduzu zure galdera guztiei erantzungo dietela. Halaber, galdetu duzu zergatik pasatzen diren baldintza agiri horiek Udalbatzarretik, eta, gaizki ulertu ez badut, kontratuaren zenbatekoagatik da. Zenbateko bat gainditzen denean, alkateak ez du eskumenik, eta osoko bilkurak erabaki behar du kontratazioa. Konturatzen bazarete, orain arte ez dugu obra-proiekturik pasatu osoko bilkuratik, baldintza agiriak proposatu ditu batzordeak, eta, gero, lizitazioa jarri da abian alkate erabakiz. Kasu honetan, zenbateko handia dela eta, osoko bilkuratik passa behar da. Eta azkenik, hemen zer onartu behar den galdetu duzu, eta baldintza agiriak onartu eta lizitazio-prozesua hastea erabaki behar da. Hona ekarri diren baldintza agiriak orain arte onartu direnetik pixka bat ezberdinak dira, obrez gain proiektuaren idazketa ere kontratatzan baita. Hau da, enpresa esleipendunak lehenik eta behin proiektua idatzi beharko du, eta behin idatzita, obrak egikaritu. Horrek bi abantaila ditu: obra proiektuaren arabera gauzatuko dela bermatzen da, eta akatsen bat egonez gero, bakarra izango dela arduraduna, eta ez gertatzea obra egikaritzen duenak proiektuaren idazleari errua botatzea edota alderantziz. Eta honekin guztiari erantzun diodala uste dut.

Jarraian argitzen da osoko bilkurara aurkezten den proposamena honako hau dela: baldintza agiriak onartzea eta proiektuaren idazketa esleitzeko expedientea hastea, Udalaren oniritzia jaso ondoren bertan aurreikusten diren obrak egikaritza eta egindako instalazioaren mantentze-zerbitzua 4 urterako esleitzea.

Aurrekoan argitura, eztabaidak aurrera jarraitzen du.

- Nestor Arana: guk ez dugu proiektua geldiarazi nahi, hori argi eta garbi geratzea nahi dugu, horrelako proiektuak babesten ditugu eta hori ikusi da, eta horrela ikusten jarraitzea nahi dugu. Zerbait egitea eskatzen duen egoera batean gaudela uste dugu, eta proiektu honek bere abantailak dituela uste dugu. Hala ere, uste dugu eztabaida handiagoa beharko litzatekeela eta horretan tematu nahi dugu, eta horregatik diogu 4 egun ez direla ezer, saio bat jar daitekeela ostegun batean eta gaia eztabaidatu. Uste dugu, beste batzuetan bezala, oraingoan ere malgutasuna egon beharko litzatekeela, eta are gehiago kontuan hartuta jokoan dauden kopuruak, ez direnak batere txikiak, baizik eta, esan duzun bezala, oso handiak. Orduan, gure proposamena da abstentzea, ditugun zalantza horiek guztiagatik; izan ere, zuk esan duzun arren



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

teknikariei dagokiela horiek konpontzea, badira zenbait gai, hala nola helburuena, argi ez daudenak, teknikariei ez dagokienak horiei erantzutea eta argi geratu beharko liratekeenak dokumentua irakurtzen duen edonork uler ditzan. Hori esanda, abstentzioen bagara, jar al dezakegu horren aurkako errekurtsorik? Izan ere, bere garaian ulertu nuen helegitea jarri ahal izateko aurka bozkatu behar dela. Gure botoa abstentzia izango litzateke, ez dugu proiektua blokeatu nahi, argi eta garbi gera dadin, baina uste dugu eztabaidea gehiago behar dela, eta batez ere aurkezten den formatu berriagatik.

Idazkariak erantzun du, kide anitzeko organo batean hartutako erabaki bat errekursoa jarri ahal izateko, bozketa partea hartu duten kideek aurka bozkatu behar zutela.

Horren aurrean, Nestor Aranak bere taldeari bost minutuko epea emateko eskatu du, hitz egin eta botoaren zentzua adostu ahal izateko.

Alkateak denbora hori eman die.

10 minutiuren buruan, EH BILDUko zinegotziak bilerara itzuli dira eta bilerak aurrera jarraitu du.

- Hitza emanda, Nestor Aranak hitz egin du, eta, bere botoaren zentzua justifikatzeko asmoz, honako hau esan du: guk proiektu hau bultzatu nahi genuke, eta hori argi geratzea nahi dugu, eta gure asmoa abstentzia zen. Uste dugu denbora gehiago behar dugula, nahiz eta legezko epeak errespetatu direla esan duzun, baina dokumentua ostiral arratsaldean igo zen eta batzordea astelehenean izan zen. Uste dugu horrelako proiektu garrantzitsu batekin egon daitezkeen zalantza guztiak argitu ahal izateko ez dakarrela ezer tramitazioa 4 egunez atzeratzeak, eta are gehiago, uste dugu positiboa litzatekeela, adostasun handiagoa egongo litzatekeelako datorkigun guztiaren aurrean, eta uste dugu ez dela batere egokia presa horiekin jardutea. Idazkariari galdu diogu, eta gero, edozein erreklamazio jarri ahal izateko, kontrako botoa ematera behartuta gaude. Lehen esan dugun bezala, zalantza asko ditugu, eta lizitazio horren jarraipena egiteko, sentitzen dugu, baina ezetz bozkatu behar dugu gure borondatearen aurka; oso kezkatuta gaude klima-aldaketarekin, eta uste dugu proiektu hau urrats indartsua dela eta bultzatu egin behar dela, baina ez edonola. Orduan, aurka bozkatuko dugu.
- Josu Ezkurdia: nik hiru gauza komentatu nahi nituzke. Bata, EHBILDUK denbora eta denbora eskatu du, zalantza asko dituelako, presaka ibili garela dio. Horren aurrean esan behar da hori ez dela egia, denbora asko daramagu proiektu hau garatzen, lan asko egin da horretarako, eta uste dugu presa duela, krisi klimatikoan gaudelako. Hori esanda, uste dut EH BILDURI beldur eszeniko pixka bat sartu zaiola tamaina horretako proiektu bat martxan jarriko dugula ikusi duenean. Ez dakit, alkatetza eskuratzeko nahia duen talde batek beldur eszeniko hori izatea, eta beti planteatzea aztertu eta aztertu egin behar dela, eta gauzak atzeratzea, bada, ez du zentzu handirik. Gu 8 urte daramatzagu udal gobernuan, eta zerbait egin badugu, bi gauza izan dira: lehenengoa, adostasuna bilatzen saiatzea; eta bigarrena, hainbat proiektu abian jartza hainbeste zalantza izan gabe. Gu oso lasai gaude proiektu honekin, esan dudan bezala, teknikarien eta kanpoko enpresen babesla duelako. Ez dut zalantzariak proiektua teknikoki ondo aterako dela; ez du zentzurik denboran atzeratzeak. Gogoratzen

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

baduzue, iaz proiektu honekin hasteaz gain, aurtengo aurrekontuetan, onartu zirenean, oniritzia eman genion, bagenekien zertan genbiltzan. Adostasun handiagoa beharko litzatekeela esan duzu, proiektua eta aurrekontuak gehiengo absolutuarekin onartu ziren, zuek zarete ezetz esaten duzuen bakarrak proiektu bat garatu nahi dugunean. Eta hau ez da bakarra, hirigintza batzordean aztertu direnean proiektu askori ezetz esan diezue. Ezetz esan duzue hainbat arrazoirengatik; ez dakit Dorletako zubia egin zenean edo parkea egin zenean izan zen, ezetz bozkatu zenuten dokumenturen bat euskaraz ez zegoelako aitzakiarekin. Egia zen, eta hori konpondu egin beharko da, baina ezetz bozkatu zenuten. Uste dut benetako aitzakia zela ez zenutela gurekin baietz bozkatu nahi. Eta hori penagarria da. Beno, baina ulertzen dut kanpainan sartzen garela, eta beti dago norbait zerbait esateko eskua altxatzentz duena.

- Nestor Arana: lau egun besterik ez dugu eskatu, bagenekien proiektuarena, baina dokumentu hau da, zehazki, joan zen ostiralean aurkeztu zenutena, eta horri buruz eztabaidatzen ari gara. Eta kanpainan sartu nahi baduzu, eta erabakiak hartzeko hainbesteko gogo eta presarekin, gogorarazten dizut hor dagoela Jubilatuen Etxeko tabernaren kontua. Urtarrilean suntsiarazi zen kontratua, eta lizitazioa oraindik ez da mahai honetara ekarri. Konpromiso sozial hain handia baduzue... gauza batzuekin azkartu egiten zarete. Eta zuri begira nago (Josu Ezkurdiari zuzentzen zaio), borroka dialektiko bat izan nahi baduzu... Guk hemen esan dugu, eta esaten jarraituko dugu, horren alde gaudela, baina hemen energia-planarekin gertatu den gauza bera gertatu da. Kasu horretan, urtebete egon zineten proiektua mugitu gabe, enpresari abenduan deitu zenioten, eta urte osoa egon zen ez geldirik, baina bai egin gabe. Eta badirudi hemen gauzak presaka onartu behar direla, denetarako dago presa. Zerbaitegatik izango da. Guk kasu honetan 4 egun eskatu ditugu, eta argi eta garbi esaten dizut ezin izan ginela batzordera joan zalantza horiek guztiak argitzeko. Orduan, txorakeria horiek alde batera utzi behar direla uste dut, seriotasunez jokatu, eta badakizu zertarako gai garen, ekarpenak egiteko gai garela eta gai honetan ekarpenak egiteko prest gaudela. Argi gera dadila hori. Lau egun eskatu ditugu dokumentu hau zehazteko. Abstenitu egingo ginenean, eta hori ere argi geratzea nahi dut. Ez dugulako hau blokeatu nahi, proiektu honek aurrera egitea nahi dugu. Baina, gero erreklamazioak jarri ahal izateko, aurka bozkatu behar izan dugu. Orduan, esan duzun guzia hutsala da. Argi gera dadila abstenitu egin nahi genuela proiektua ez geldiarazteko. Bestalde, galdera teknikoei erantzuteko gaitasunik ez duzula esan duzu, eta zalantzan jartzen dut. Bestela, arazo larria dugu hirigintza-arloko arduradunak gaitasun tekniko hori ez badu 4 datu argitzeko bada ere, helburuak argitzeko ere; hori baita onartzen ari zaretena. Horrela bada, larrialdi-egoera da. Dokumentua ez da oso luzea, 28 orrialde ditu, batzuk erdi hutsik, eta oso ulerterraza da, hirigintzako arduradunarentzat behintzat, ez da zaila, baina gutxieneko ezagutzak izatea eskatzen du. Orduan, argi gera dadila, zergatik egon garen behartuta ezetz esatera, proiektu honen alde gaudelako.
- Josu Ezkurdia: tira, besterik gabe. Gu ez gatoz hona borrokatzera, proiektuak aurrera ateratzera baizik. Eta nahi duzun guzia esango duzu, baina ados egongo zarete, babestuko duzue... baina beti aurka bozkatzen duzue.
- Leire San Vicente: niri zerbaitek arreta berezia eman dit: euskaraz ez zegoelako dokumentu bat atzera bota izana. Niretzat oso garrantzitsua da euskara udal eta herri



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

batuen funtzionamendu hizkuntza izatea. Niretzat zubi bat bezain garrantzitsua da herri batek euskaraz funtzionatzea; niretzat garrantzitsuak dira bilakaera urbanistikoa eta bilakaera linguistikoa, eta uste dut euskaraz ez egotea arrazoi justifikatua zela dokumentu bat atzera botatzeko. Hori esan nahi nuen bakarrik, eta proposamenaren alde bozkatuko dut.

- Nestor Arana: barkatu, dokumentu hori ez dago euskaraz.

2.- MONDRAGON UNIBERTSITATEA KOOP. ELKARTEAREKIN ETA HUHEZI KOOP. ELKARTEAREKIN FORMALIZATU BEHARREKO LANKIDETZA-HITZARMENA LURZORUAK JABARI PUBLIKORAKO LAGATZEKO ETA ERREGISTROKO 1772. ZENBAKIKO FINKAREN ZENBAIT GUNEREN MANTENTZE-LANEN ERREGIMENA EZARTZEKO.

Josu Ezkurdiak labur azaldu du formalizatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia, nahiz eta bertaratutako guztiak hitzarmenaren nondik norakoak ezagutzen dituzten, kopia bat izan dutelako.

Nestor Aranak eta Xabier Uriartek adierazi dute beraiek ez dutela eztabaidan eta bozketa parte hartuko Mondragón Unibertsitatea S.Coop-ekin eta HUHEZI S.Coop-ekin duten harremanagatik, eta beste inork ezer esan ez duenez, proposamena bozkatu egin da.

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingrumen batzorde informatzaileak emandako diktamenaren arabera, eta bozketa parte hartu duten 9 zinegotziak alde bozkatuta (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 47.2 artikuluan aurreikusitako gehiengoa osatzen dute), Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

1.- Hasiera batean onartzea Mondragon Unibertsitatea koop. elkarrearekin eta Huhezi koop. elkarrearekin formalizatu beharreko lankidetza-hitzarmena lurzoruak jabari publikorako lagatzeko eta erregistroko 1772. zenbakiko finkaren zenbait guneren mantentze-lanen erregimena ezartzeko. Honekin batera doa 1. eranskin gisa.

2.- Hitzarmena jendaurrean jartzea 20 eguneko epean, hitzarmenaren eduki osoa jasotzen duen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan hitzarmena eskuragarri egongo da Eskoriatzaako Udalaren webgunean.

3.- Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, hitzarmena behin betiko onartutzat joko da, beste akordiorik behar izan gabe, eta hitzarmena sinatzeko baimena ematen zaio alkateari.

4.- 1772. finkaren titular juridikoak bere gain hartzen duen banantzearen ondoriozko finketako biren lagapena ONARTZEA.

Lagatako finkak honako hauek dira:

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

- *Banandu beharreko bigarren finka bat etorriko da Plan Bereziaren Jarduketa Isolatuko Unitatearen barruko jabari publikoko eremuarekin (eranskinean 2.1.1 gisa identifikatutako eremua) eta Planaren eremutik kanpoko finkaren zatiarekin, eremu horretako eraikinaren iparraldean, ekialdean eta hegoaldean dagoena, erantsitako aipatutako planoaren arabera, 1.1. bezala identifikatutakoa.*
- *Banandu beharreko hirugarren finka bat etorriko da eranskinean 1.2 eremua bezala identifikatutakoarekin, eta Planaren eremutik kanpo dagoen finkaren zatian kokatzen da.*

5.- Alkateari ahalmena ematea hemen erabakitakoa gauzatzeko behar diren agiri publiko eta pribatu guztiak sina ditzan.

3.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- CONTRATO MIXTO DE REDACCIÓN DE PROYECTO, DIRECCIÓN Y EJECUCIÓN DE OBRA (PRESTACIÓN PRINCIPAL) PARA LA IMPLANTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE UN SISTEMA DE GEOINTERCAMBIO: Aprobación del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que ha de regir la licitación y apertura del procedimiento de adjudicación.

Considerando que, a los efectos previstos en el artículo 28 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público , esta Corporación entiende necesario que se tramite un contrato administrativo mixto para la implantación y mantenimiento de un sistema de geointercambio, así como la adecuación necesaria de las salas de calderas, su puesta en servicio y optimización en los edificios del polideportivo, Luis Eceiza, Kulunka, Haur Hezkuntza y frontón. Dicho contrato comprende la contratación conjunta de:

- Redacción de proyecto
- Ejecución de obra (prestación principal).
- Dirección de obras.
- Coordinación de seguridad y salud.
- Mantenimiento.

Completado el expediente y visto el valor estimado del contrato y las demás actuaciones del expediente, en el que se justifica adecuadamente la elección del procedimiento, los criterios que se tendrán en consideración para la adjudicación del contrato, así como el resto de aspectos a que se refiere el art. 116 de la Ley 9/2017, de 8 de Noviembre, de Contratos del Sector Público.

Visto que se han incorporado al expediente el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas .

Visto que se prevé el inicio del contrato en la presente anualidad, y que se ha establecido en 5 años y 2 meses el plazo de duración del mismo. Los últimos 4 años se corresponden con la fase de recepción, verificación, garantía y mantenimiento.

**2023/05/11
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria**



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

